ZENTROKO BATZORDEEN URTEKO TXOSTENA

INFORME ANUAL DE COMISIONES DE CENTRO

EUSKARA BATZORDEA
COMISIÓN EUSKARA

ACTIVIDAD 2019 /2020 EKINTZAK

Batzordearen aktetan informazio gehiago eskura daiteke.

Más información disponible en las actas de cada comisión.

- Fakultatearen Euskara Plana eratu da eta Fakultate Batzarrean onartu da.
- *Hizkuntzen erabileraren neurketa*n parte hartzea.Gure ikastegiaren atala aukeratu dute 2019-20 ikasturtean "Hizkuntzen erabileraren neurketa" egiteko. Irailaren lehen astean jarriko dira gurekin harremanetan proiektuaren azalpen zehatza egiteko, prozedura adosteko eta eskatu nahi diguten laguntza bideratzeko.
- 2019/2020 ikasturteko EHUren ekintzak COVID19 egoerak baldintzatu ditu eta irakaskuntzari lehentasuna eman zaio EHUren gomendioak jarraituz. Hortaz, hurrengo ikasturterako utzi behar izan da planean jaso eta aurre egitea ezinezkoa izan den ekintzari, halaber, GrALak saritzea martxan jartzeari.

PLAN para 2020/2021eko PLANA

2020/21 kurtsorako aurreikusitako ekintzak:

- Egingo den hurrengo 2020ko Euskaraldian parte hartu.Irakasle eta AZPkoen artean harremanak euskaraz izatea sustatzeari lehentasuna emanez.Gizarte langintzan graduan, ekimenetako bat, irakasgai baten dinamikarekin bateratzea izango da,
- Euskara planarenzenbait ekimen martxan jarri.
- GrALak saritzea martxan jarri. Mitxelena saria, tesientzako UPV/EHUk jadanik duena, eredu izan daiteke. Graduazio ekitaldietan hauen aipamena egin ahal da.

GrALaren bi graduen irakaskuntza gidetako txantiloian tutore zein epai-mahaiari dagokien atalean, adierazteko bideak ezarri daitezke,

hau da, sarirako proposatua izan dela. Hurrengo batzorde batean ezarriko dira hauek ebaluatuak izateko irizpideak.

- Gradua euskaraz ikasi baina GrALa erderaz egiten duten pertsonak daudela detektatu da. GrALa ere euskaraz egin dezaten animatzeko edo beldurra kentzeko, GrAL mintegian horri buruz hitz egingo zaie.
- Harrera egunean, lehenengo mailako euskara eta erdarako taldeei beraien hizkuntza gaitasunak indartzearen garrantziaz eta beharraz hitz egingo zaie, bereziki euskarazko hizkuntza erabilera eta praktika indartzearen norabidean. Bi hizkuntza lerroen arteko nahasketa eta euskararen erabilera indartzeko elkarrekin ikastearen garrantzia azpimarratuz.
- Euskaraz defendaturiko GrALen ikusgarritasunerako, euskaraz defendaturikoen zerrenda jakitera eraman, batez ere Lan Harreman eta Giza Baliabideen gradukoak.
- EHUk dituen baliabideak jakinarazteko kurtsoren bat dagoen ikertu, eta badago, zabaldu. (Zer eratako errekurtsoak dauden euskarazko produkzioa orrazteko, e.a.). Makazaga zuzendariari eskaera egingo zaio.
- Euskararen inguruko irakasgaiak egin dituzten 3. eta 4. mailako ikasleek, 1go mailakoei kurtsoren bat ematea.

Amaia Inza Bartolomé

Batzordeburua/Presidenta de la Comisión

2020ko uztailaren 24an / 24 de julio de 2020